







Energia kontsumoa EAEn



Energiaren kontsumoa EAEn

Elektrizitatea

Euskadin kontsumitutako elektrizitateak %4,2 egin zuen gora apirilean, 2014. urteko hil berean izandakoaren aldean. Arloka, industriaren %0,3 jaitsi zen; etxekoan, berriz, %20,4 igo zen eta zerbitzu alorrean %6,7.

Apirila bitartean izandako kontsumo metatuak %2 egin zuen gora; industrian %1,7 jaitsi zen, zementu eta karea sektoreetan, aldiz, %17,4 igo zen, baita itsas eraikuntza eta konponketa (%31,5), siderurgia eta galdagintza (%1,2) sektoreek ere gora egin dute. Behera egin dutenak, ordea, beiragintza (%12), papera eta kartoia (%9,4) eta kautxuaren eratorriak (%1,3) izan dira.

Gas naturala

Apirilean, gas naturalaren guztizko kontsumoak %11,1 egin zuen gora, 2014ko apirilean izandakoarekin konparatuta. Zentral termikoena %17,1 igo zen eta gainerako sektoreena %10.







Apirila bitartean izandako kontsumo metatuak %14,8 egin du gora, aurreko epealdiaren aldean, (%17,3 CCTT-n eta %14,4 gainerako sektoreetan).

Erregaiak garraioan

Martxoan, garraioan erregaien kontsumoa %2,5 igo zen, 2014. urteko hil berean izandakoarekin konparatuta. Gasolinarenak %0,9 egin zuen behera eta A gasolioarenak, berriz, %2,8 egin zuen gora. Lehen hiru hilekoan izandako kontsumoa %0,5 igo da, aurreko epealdiarekin alderatuta. Hala, gasolinen kontsumoak %3,1 egin zuen behera eta A gasolioarenak, aldiz, %0,9 egin zuen gora.

Iturriak: EEEK prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

Kanpoko Egoera



EAetik kanpoko egoera

Petrolioaren kontsumoa munduan

Aprilean, munduan petrolioaren kontsumoa egunean 92,4 milioi kupel izan zen (2014ko apirilean izandakoaren aldean, %1 igo zen). Epealdi berean, Europar Batasunean %2,6 egin zuen behera kontsumoak, 13,1 Mbbpd kantitatera iritsiz; Txinan %3,1 egin zuen gora, eta 11,3 Mbbpd kontsumitzera heldu zen; AEBetan, %0,3 igo zen, eta 18,8 Mbbpd kopuruan kokatu zen.

Munduan, azken 6 hilabeteetan, eguneroko petrolioaren batez besteko kontsumoa %1 igo da, oro har, Txinan %3,8 eta AEBetan %0,5; Europar Batasunean, berriz, %1 jaitsi da.

Energiaren kontsumoa Espainian

Espainian, gas naturalaren kontsumoak %7 egin zuen gora apirilean, 2014ko hil horretan izandakoarekin alderatuta. Apirila bitartean izandako kontsumoak %7,3 egin zuen gora.






Elektrizitatearen kontsumoak ere gora egin zuen apirilean, %1,3, 2014ko apirilean izandakoaren aldean. Apirila bitartean izandako kontsumoak %2,7 egin zuen gora.

Espainian, errepideetan erregaien kontsumoak %4 egin zuen gora martxoan, 2014ko hil berean izandakoarekin alderatuta; gasolinaren kontsumoa %0,1 jaitsi zen, eta gasolioena, ordea, %4,8 igo zen. Urte mugikorrek kontsumoak %1,8 egin zuen gora, aurreko epealdiaren aldean, (%0,7 jaitsi zen gasolinena eta %2,4 igo zen gasolioena).

Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoen kontsumoak %1,4 egin zuen behera martxoan; urte mugikorrek kontsumoa %3,2 igo zen, aurreko epealdiarekin erkatuta.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEk prestatua, AIE eta EIAREN datuetan oinarrituta.

Energiaren prezioa



Energiaren prezioa

Elektrizitatearen prezioa.

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioa 45,3 €/MWh izan zen apirilean; duela urtebete baino lehen, %71,5 egin zuen gora.

Gas naturalaren prezioa.

Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioa 22,4 €/MWh izan zen martxoan, eta %11,4 jaitsi zen, 2014ko hil berean izandakoarekin erkatuta. Apirilean, EGIX-en prezioa 20,5 €/MWh izan zen (2014ko apirilean izandakoarekin alderatuta, %2,4 igo zen). Spot merkatuetan, apirilean, Henry Hub-en prezioa 8,2 €/MWh izatera iritsi zen, 2014ko hil horretan izandakoarekin konparatuta, %29,5 jaitsi zen. Japonian, martxoan, 24,9 €/MWh izan zen (2014ko martxoan izandakoaren aldean, %44,8 egin zuen behera).

Petrolioaren prezioa.

Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 59,4 \$ (54,9 €) izan zen apirilean. Urte mugikorraren batez besteko prezioak %24,6 egin zuen behera (%19,5 eurotan).

Erregaien prezioa.

EAEn, martxoan, gasolioaren prezioa 1,15 €/l izan zen (urtebete baino lehen, %11,4 jaitsi da), eta gasolinarena 1,24 €/l (urtebete baino lehen, %9,2 jaitsi da).

CO₂-aren prezioa.

CO₂-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 7,1 €/t izan zen apirilean, eta urtebete lehenago izandakoarekin konparatuta, %34,4 egin du gora.

Iturriak: EEEk prestatua, OMIE, CESUR, CNE, EEX, Japoniako Industria Ministerioa eta BAFaren datuetan oinarrituta.